BERTSOLARITZA

# Bertsotarako Arbel Digitala egin dute IXAk eta Bert Elkarteak

Bertsoak idazten laguntzen duen programa da

**11.01.13 - 17:10 - FELIX IBARGUTXI | DONOSTIA**



**VÍDEO**

Bertso-Eskola Digitala webgunea aurkeztu du gaur Donostian Bertsozale Elkarteak. Horko ataletako bat Bertsotarako Arbel Digital laguntzen duen programa, Euskal Herriko Unibertsitateko IXA taldeak prestatua. Beste ataletako bat Bertso-Eskolen Mapa da, Eus berri ematen duena, eta tresna egokia haiekin harremanetan jarri nahi duenarentzat.

Euskal Herriko Bertsozale Elkartea eta EHUko IXA taldea elkarlanean jardun dira webgune hau garatzeko. Bertara ekarri dira Elka dokumentazio-zentroko hainbat material, besteak beste doinutegia. Aipatutako bi atalez gain, Bertsolaritzaren Mapa izenekoa erre non herri bakoitzean dagoen bertso-mugimendua deskribatzen den. Tresnak izeneko atalean, berriz, agenda, biografiak eta beste dira.

Manex Agirrezabal informatikaria izan da Arbel Digitalaren arduradun nagusia. Bertsozale Elkartearen izenean, berriz, Aritz Zerain Transmisio Saileko Ixiar Eizagirre mintzatu dira gaur Donostiako KM Kulturunean egin den aurkezpenean.

### TAGS RELACIONADOS

Bertso-eskola Digitala, IXA, Bertsotarako Arbel Digitala, Manex Agirrezabal